



EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDE COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO NTASUN BATZORDEA

2/2021 expedientea. Jatorria: [REDACTED]
Expediente 2/2021. Procedencia: [REDACTED]

AURREKARIAK

I.- 2021eko martxoaren 15ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordean, [REDACTED]k martxoaren 9an Bilboko Udaleko Herritarren Segurtasunerako Sailean aurkeztutako kexa baten kopia jaso da. Horretan azaltzen du ez dagoela ados Udaltzaingoko agente batek trafikoko gertakari batean egindako jarduketarekin, ezta Udal sail horrek hasierako kexari emandako erantzunarekin ere.

II. Gaiaren azterketa eta Batzordearen erabakia.

Hasteko eskerrak eman nahi dizkizugu, zure lankidetzaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideen portaera desegokiak desagerrarazten saiatzea baita. Dena den, jakinarazi behar dizugu Batzorde honek ez daukala gai horretan esku-hartzeko eskumenik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzen duen legearen arabera, Batzorde honek Euskadiko polizia kidegoak mendean dituzten administrazioek eskatuta baino ezin du jardun -hau da, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak edo kasuan kasuko Udal Agintaritzak eskatuta- edo Arartekoak eskatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak ofizioz ere jardungo du, bere ekimenez, poliziaren jarduketetan zehar norbait hiltzen bada edo larriki lesionatuta suertatzen bada (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 17.2 eta 19.1 artikuluak).

ANTECEDENTES

I.- Con fecha 15 de marzo de 20021, se recibe en la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, copia de la queja presentada por D. [REDACTED] dirigida al Departamento de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Bilbao el pasado 9 de marzo, en la que muestra su disconformidad, tanto con la actuación de un agente de la Policía local en un incidente de tráfico, como con la respuesta que desde el citado Departamento municipal se dio a su queja inicial.

II. Estudio del asunto planteado y decisión de la Comisión.

En primer lugar se agradece su colaboración para tratar de erradicar cualquier comportamiento no adecuado entre los miembros de la Policía Vasca. Sin embargo, hemos de comunicarle que esta Comisión carece de competencia para intervenir en este caso.

Según la ley que la crea, la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco solo puede actuar a instancia de las administraciones de las que dependen los cuerpos policiales vascos -es decir, Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, o la Autoridad Municipal correspondiente- o del Ararteko.

La Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco también actuará de oficio, por propia iniciativa, en los casos en los que en el curso de una actuación policial se produzcan resultados de fallecimiento o lesiones graves (artículos 17.2 y 19.1 de la Ley de Policía del País Vasco).

Ondorioz, Batzorde honek ezin duenez jardun kexak partikular batek aurkeztutakoak badira, gure jarduketa kasu honi dagokionean amaitutzat eman behar dugu eta, tamalez, jakinarazi behar dizugu idazkian helarazi diguzun gaia ezin dugula onartu.

Jakinaraz bekio erabaki hau eskatzaileari, eta hau erabakitzet da Vitoria-Gasteizen 2021eko apirilaren 12an.

En consecuencia, y puesto que esta Comisión no puede intervenir frente a quejas planteadas por particulares, tenemos que dar por concluida nuestra actuación en este caso, por lo que lamentamos tener que comunicarle la inadmisión de la cuestión que nos traslada en su escrito.

Procédase a comunicar al solicitante esta decisión, lo que se acuerda en Vitoria Gasteiz, a 12 de abril de 2021.